LEZOKO UDALA

Etxebizitzarik jabetzan ez duten eta alokairuan bizi diren lezoarrei ur hornidurari, estolderiari eta zaborrak biltzeko eta ezabatzeko zerbitzuari dagozkien tasen ordainketa finantzatzeko 2026. urterako dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak.

I. XEDEA

Oinarri hauen xedea da Lezon alokairuan bizi diren eta jabetzan etxebizitzarik ez duten pertsonek 2026an ordaindutako ur-hornidurari, estolderiari eta zaborrak biltzeko eta ezabatzeko zerbitzuari dagozkien tasen ordainketa finantzatzeko dirulaguntzak ematea, lehia-araubidean eta aldez aurreko izapidetzearen bidez. Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten bizikidetza-unitateak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradun.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketa egongo dirulaguntza publikoekin, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzuli behar izanez gero, onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Lezoko Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

II. DIRULAGUNTZETARAKO DIRU IZENDAPENA.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak 2027ko ekitaldiko udal-aurrekontuko 0900.480.01.150.00 aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko dira, 20.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

Izapidetze aurreratuko deialdi bat denez, 2027ko ekitaldiko udal-aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean emango dira dirulaguntzak.

Baldin eta aurrekontu-kreditu erabilgarria ez bada nahikoa deialdian ezarritako baldinzak betetzen dituzten eskabide guztiei erantzuteko, udalak proportzionalki murriztu ahal izango ditu dagozkion dirulaguntzen zenbatekoak, oinarri arautzaileetan ezarritako irizpideen eta mugen arabera.

III. ONURADUNAK

Dirulaguntzen onuradun izan daitezke honako baldintza hauek betetzen dituzten bizikidetza unitateak, Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 25-28 artikuluei jarraituz:

1. Eskaera aurkezten denean bizikidetza unitatea osatzen duten kide guztiak dirulaguntzaren xede diren tasei dagokien Lezoko etxebizitzan erroldatuta egotea eta bertan bizitzea, alokairu erregimenean.

   Bizikidetza-unitatearen kideak zehazteko, erreferentzia gisa hartuko da Lezoko Biztanleen Udal Erroldaren azken eguneratzean ageri den informazioa.

2. Bizikidetza-unitateko kideek etxebizitzarik jabetzan ez edukitzea. Pertsona bat etxebizitzaren jabe dela ulertuko da %50aren edo gehiagoren jabea bada.

3. Bizikidetza unitateko kide bat unitate hori bizi den etxebizitzari dagokion ur-horniduraren eta estolderiaren eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasen zergaduna izatea. Zergaduntzat hartuko da Lezoko Udaleko ordainagirien titularra ez izan arren, gastu horiek zeharka jasaten dituen pertsona, hala egiaztatzen badu dagokien agirien bidez.

4. Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerek, eta ondareak, kide guztienak zenbatuta, oinarri honetan ezarritako mugak ez gainditzea.

5. Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharretan egunean egotea.

6. Lezoko Udalarekin zorretan ez egotea.

IV. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKUA ETA DOKUMENTAZIOA

Aurreko ataleko baldintzak betetzen dituzten bizikidetza unitateetako titularrek eskaera aurkeztu dezakete, Lezoko Udalak horretarako sortutako eskaera orri normalizatuaren bidez, egoitza elektronikoan (www.lezo.eus helbidean) edo aurrez aurre, Lezoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuko bulegoan (Gurutze Santuaren Plaza 1, 20100, Lezo, helbidean). Baita , urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere.

Eskaera orrian eskatzaileak derrigorrez adierazi beharko du bere kontu korronte zenbakia, eta kontu korronte horretan egingo da dirulaguntzaren ordainketa. Halaber, eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- 2026an ordaindutako tasen erreziboen ordainagiriak.

  Gastua zeharka jasan den kasuetan, alokairu kontratua, bertan adierazten bada, idatziz eta zalantzarik gabe, gastu horiei aurre egiteko betebeharra duela, edo gastuak ordaindu dituela frogatzen duten ordainagiriak.

- Hala badagokio, genero indarkeriaren biktima izatearen egiaztagiria.

- Hala badagokio, pentsionista izatearen egiaztagiria.

Dena den, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluak ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Era berean, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte.

Beraz, Lezoko Udalak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko informazioa kontsultatuko du erakunde ofizial eskudunean, NISAE Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun eta segurtasun nodoaren bidez (edo informazio hori lortzeko gaitutako beste bitarteko baten bidez), interesdunak horren aurka egiten ez badu. Zehazki, kasu honetan, Lezoko Udalak ondorengo inguruabarrak kontsultatuko ditu, bizikidetza-unitateko kide guztiei dagokienean:

- Bizikidetza-unitateko kideak eta horien nortasuna
- Kontu korrontearen titulartasuna
- PFEZren inguruko datuak
- Prestazio publikoen kontsulta
- Kontu-maila

- Ondare-maila
- Ondasun higiezinei buruzko datuak
- Desgaitasun datuak.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak egunean izatea.
- Lezoko Udalarekin zorretan ez egotea.

Lezoko Udalak ezin badu eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, edo baldintzak edo betebeharrak egiaztatzeko dokumentazio gehiago bildu behar bada, eskatzaileari dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio, espedientearen kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

Lezoko Udalak egiten duen datu pertsonalen trataera legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Udalari berari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko, Datuak Babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Erregelamendu horri eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraiki, dirulaguntza eskaeretatik lorturiko datu guztiak Lezoko Udalak bildu eta tratatuko ditu eskabidea egoki bideratzeko helburuarekin. Tratamendu horretarako, Lezoko Udalak ziurtatzen du segurtasun neurri egoki guztiak hartuko dituela, eta horretarako langileak trebatu dituela horien pribatasuna bermatzeko, galera ekiditeko, gaizki ez erabiltzeko, ez aldatzeko, baimendu gabe ez sartzeko edota ez galtzeko eta, horrekin batera, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko araudia betetzeko.

Edonola ere, gorago aipatu moduan, interesdunak datuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea dauka, erregistro elektroniko bidez aurka egiteko eskatuta, Datuak Babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluarekin adostasunean. Kasu horietan, interesdunak prozedura izapidetzeko behar diren datu edo dokumentu guztiak aurkeztu beharko ditu, eta aurkeztu ezean, datuak ezkutatzea eta eskatzaileak (edo bizikidetza-unitateak) uko egitea bezala hartuko da, eta horrek automatikoki prozesutik kanpo uztea ekarriko du.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak osagabeak direla edo oinarrietan ezarritako baldintzak ez dituztela betetzen egiaztatzen denean, interesdunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean akatsak zuzen ditzan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko zaio hala egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, indarrean dagoen araudiari jarraiki ebazpena eman ondoren.

Eskaera onartua izanda ere, Udalak beharrezkoak dituen argibide eta dokumentuak eska ditzake.

Dirulaguntza eskatze hutsaren ondorioz, dirulaguntza hori ematea arautzen duten oinarriak ezagutzen eta onartzen direla onartu beharko da.

V. ESKAERA AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 1ean hasiko da eta 2026ko abenduaren 24ean amaituko da, eguerdiko ordubietan.

VI. PROZEDURA

Eskaera aurkeztu eta Udalak dagokion dokumentazioa jaso eta gero, eskatzaileek onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten egiaztatuko du Gizarte Zerbitzuetako teknikariak, eta eskaerak ebaluatuta, dagokion proposamena prestatuko du. Jarraian, beharrezkoak diren izapideak gauzatuta, eta dagozkion txosten teknikoen irizpideak jarraituz, alkateak edo, bere delegazioz, Tokiko Gobernu Batzordeak, dirulaguntza eman edo ez erabakiko du, bere kasuan, kopurua eta ordainketa-baldintzak zehaztuta.

Adierazi moduan, Gizarte Zerbitzuetako teknikaria arduratuko da oinarri hauetan jasotako prozedurak bideratzeaz.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 24. artikuluan aurreikusten duenarekin bat etorriz, dirulaguntza eskaerak ezetsi egin direla ulertu behar da, eskaerak aurkezteko finkatutako epea amaitu eta 3 hilabeteko epean berariazko ebazpenik hartu ez baldin bada.

VII. DIRULAGUNTZA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Udalak onuradun bakoitzari emango dion dirulaguntza zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

1. Bizikidetza-unitate bakoitzaren baliabideak zehazteko, bertako kideen urteko errenta eta finantza-ondarea hartuko dira aintzat.

2. Errenta, bizikidetza unitatearen diru-sarrerei kenkariak aplikatzerakoan geratzen den zenbatekoa izango da.

   Diru-sarreren kalkulua egiteko, azken ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpeneko hurrengo kontzeptuak batuko dira:
   1. Lanaren etekinak.
   2. Kapital higiezinaren etekinak.
   3. Kapital higigarriaren etekinak.
   4. Jarduera ekonomikoen etekinak.
   5. Ondare irabaziak.

   Bizikidetza unitateko diru-sarreren gainean honako kenkariak aplikatuko dira eta metagarriak izango dira:
   1. Genero indarkeriaren biktima: 1.700 €.
   2. % 65 edo gehiagoko desgaitasuna duen bizikidetza unitateko kide bakoitzeko: 1.700 €
   3. Pentsioduna izatea: 1.050 €

3. Finantza-ondarearen zenbatekorako/kalkulurako, berriz, bankuko kontu korronteen saldoak eta finantza-aktiboak izango dira kontuan. Errentaren araberako hobariak aplikatzeko, bizikidetza-unitatearen finantza-ondareak ezin izango du taulan ageri den kide kopuru bakoitzari dagokion zenbatekoa gainditu.

4. Urteko errenta maila eta finantza-ondarea aintzat hartuta, beraz, ondorengo taulan agertzen diren ur horniduraren eta estolderiaren eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren ordainagirien ehuneko horien araberako dirulaguntzak eskatu ahal izango dira.

FINANTZA ONDAREA	%95	%85	%75	%50	%20
31.486	15.743 - 17.317	17.318 - 18.891	18.892 - 20.466	20.467 - 22.040	22.041 - 23.614
41.981	20.991 - 23.090	23.091 - 25.189	25.190 - 27.288	27.289 - 29.387	29.388 - 31.486
48.278	24.139 - 26.553	26.554 - 28.967	28.968 - 31.381	31.382 - 33.795	33.796 - 36.209
54.575	27.288 - 30.016	30.017 - 32.745	32.746 - 35.474	35.475 - 38.203	38.204 - 40.932
60.873	30.436 - 33.480	33.481 - 36.524	36.525 - 39.567	39.568 - 42.611	42.612 - 45.654
67.170	33.585 - 36.943	36.944 - 40.302	40.303 - 43.660	43.661 - 47.019	47.020 - 50.377

Dirulaguntzaren zenbatekoa, ur horniduraren eta estolderiaren tasaren eta zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzuaren tasaren kuotei, kasu bakoitzean aplikagarria zaion ehunekoaren araberakoa izango da.

Errekarguek, kostak eta interesek ez dute dirulaguntzarik edukiko.

VIII. ORDAINTZEKO MODUA ETA EPEAK

Dirulaguntzaren zenbateko osoa dirulaguntza ematea onartzen den unean ordainduko da, eskaera egitean zehazten den kontu korrontean.

IX. DIRULAGUNTZA JASOTZEN DUTENEN BETEBEHARRAK

Lezoko Udalak egiaztatzen baldin badu bizikidetza-unitateren batek dirulaguntza jaso duela hura eskuratzeko bete beharreko baldintzak bete gabe, behar ez bezala jasotako kopuru horiek itzuli beharko dira, gehi ordaindu zen uneaz geroztik izandako interesak, dagokion itzulketa prozeduraren bidez.

X. INTERPRETAZIOA.

Lezoko Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailak argituko du oinarri hauek interpretatzean sor daitekeen edozein zalantza.

XI. ARGITARATZEKO BIDEAK.

Oinarri hauek oso-osorik Lezoko Udalaren egoitza elektronikoan eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren webgunean argitaratuko dira, baita udaletxeko iragarki-oholean ere. Deialdiaren laburpena berriz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hau ere, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez bidalia.

XII. ADMINISTRAZIO BIDEAREN AMAIERA

Dirulaguntza ebazteko egintzak amaiera emango dio administrazio bideari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatzen denarekin bat, ebazpen horren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioke ebazpen hori eman zuen organoari hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 19/2013 Legearen arabera.

XIII. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Oinarri hauetan aurreikusten ez den guztirako, herri erakundeei aplikatu beharreko araudiak dioena beteko da. Bereziki, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta lege horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak diotena hartuko dira kontuan, baita Lezoko Udalaren dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko ordenantza arautzailea (GAOn argitaratua 2018ko azaroaren 6an, 213 zkia.) eta 2024-2026ko ekitaldietarako Lezoko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa ere (2024ko urtarrilaren 29ko D24/0152 alkate dekretuz onartua, GAO 2018/11/06, 42 zkia., eta 2024ko urriaren 4ko D24/1144 alkate dekretuz eta 2026ko urtarrilaren 21eko D26/0088 alkate dekretuz aldatua, GAO 2026/03/06, 44 zkia.).

Halaber, araudi horretan xedaturik ez dagoena arautzeko, lege hauek aplikatuko dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.